

2021

URTEKO MEMORIA

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA

COMGI

Elkargoa, zugandik hurbil



@comgipuzkoa



@comgipuzkoa



www.facebook.com/colegioelkargoa



<https://www.linkedin.com/company/10040220/admin/>



<https://www.youtube.com/c/COMGIPUZKOA>



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA

Frantzia hiribidea, 12
20012 Donostia (Gipuzkoa)

HARREMANETARRAKO

Bulegoa: 943 276 300 / Fax: 943 321 788
E-posta: info@comgi.eus

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera: 9:00 - 13:00h. eta
15.00 - 18.00h.
Ostiraletan: 8.30 - 13.30h.

UDAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:30 h. eta
asteazkenetan: 08:30-17:30 h.



comgi

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa
Colegio de Médicos de Gipuzkoa

Frantzia hiribidea, 12, 20012 Donostia (Gipuzkoa)

info@comgi.eus

www.comgi.eus

Diseinu eta maketazioa: didart.eu

Donostia, 2022ko maiatza

ELKARGOKO LANGILEAK

Bulego teknikoa

Alberto Etxaburu
direccion@comgi.eus

Eduarne Cristti
edurne@comgi.eus

Aiora Perdiguero
aiora@comgi.eus

Estibalitz Peña
estibalitz@comgi.eus

Aholkularitza Juridikoa

Jon Pellejero
jpellejero@comgi.eus

Komunikazioa

Ana Soro
prensa@comgi.eus

Fundazioa

Ortzi Balda
coordinador@comgi.eus



URTEKO MEMORIA 2021

COMGI

AURKIBIDEA

Presidentearen agurra	3
Elkargoa	5
Datuak	8
Jarduerak	20
Fundazioa 2021eko Memoria	33

Manuel García
Bengoechea



PRESIDENTEAREN AGURRA

SENDAGILEON BOKAZIOAN OINARRITUTAKO URTEA

2021 urtea, berriz ere, pandemiak jotako urtea izan da. Nahiz eta SARS COVID 2-aren inguruko ezagutza gero eta handiagoa izan (txertoak, tratamendu terapeutikoak, ikerketa ugari martxan...), oraindik ere itxi gabeko gai ugari daude.

Testuinguru honetan gure egitekoa ezinbestekoa izan da: bai sendagileena bai eta osasun langile guztiena ere. Pandemia hasi zenetik pairatzen dugun neke eta estresaren gainetik gure onena eman dugu denek. Lehen Mailako Arretako lankideek, oraindik ere, gaixo zerrenda amaigabeekin lanean dihardute, deskantsurik gabe eta motibazioa nonbait galdurik; antzeko dabilta ere Larrialdietako lankideak. **Editorial** honetan idatzi nuen bezala, argi dago aldaketa estruktural garrantzitsuak egin behar direla gure osasun zerbitzua hobetzeko, baina, dudarik gabe, egin behar den lehenengo gauza lanean dauden langileak errespetatu eta zaintzea da, euren lana utz ez dezaten.

Era berean, ez da urte erraza izan medikuntza pribatuko sendagileentzat. Gaixoen alde egiten duten eguneroko lana eta krisialdi honetan ere egindako esfortzua ez ziren nahikoak izan txertatze kanpainen euren immunizazioa lehenesteko; Eusko Jaurlaritzak beste kolektibo batzuen txertatzea lehenesten zuela ikusi eta gogor egin behar izan zuten eremu publikoko osasun langileen antzera



Elkargoak ekimena atera bezain laster, askok eman zuten izena zenbat? galdetu ere egin gabe, edozertarako prest: txertatzea, bajak tramitatzea... Benetan pozgarria izan da niretzako lankideen erantzun hau bizitzea eta aurtengo Sendagilearen Egunean erabili genuen leloak duen balioa baieztatu dit berriz ere: "bokazioak ez du inoiz erretiroa hartzen".

immunizazioa lortu ahal izateko. Elkargoak bere babesa eman zien eta bilerak eta zenbait ekintza egin zituen eta, azkenean, zorionez, medikuntza pribatuko sendagileek txertoa jaso ahal izan zuten.

Baina ez dut 2021 urteari egiten ari naizen errepasoa amaitu nahi zenbait sendagileri eskerrak eman gabe: krisialdi honetan boluntario ibili diren sendagile jubilatuei, hain zuzen ere. Elkargoak ekimena atera bezain laster, askok eman zuten izena **zenbat?** galdetu ere egin gabe, edozertarako prest: txertatzea, bajak tramitatzea... Benetan pozgarria izan da niretzako lankideen erantzun hau bizitzea eta aurtengo Sendagilearen Egunean erabili genuen leloak duen balioa baieztatu dit berriz ere: **bokazioak ez du inoiz erretiroa hartzen.**

Eskerrik asko denei betirako sendagile izaten jarraitzeagatik.



ELKARGOA

EGITURA

GOBERNU BATZORDEA

Une honetan, ondorengo kideek osatzen dute Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko Zuzendaritza Batzordea:



Manuel García Bengoechea LEHENDAKARIA	Victor Irigoyen Murua DIRUZAINA/KONTULARIA	Ander Letamendia Ioinaz BATZORDEKIDEA
Valentín Collado Espiga LEHEN LEHENDAKARIORDEA	Irune Alzola Elizondo BATZORDEKIDEA	Belén López Rubio BATZORDEKIDEA
Ignacio Eizaguirre Sexmilo BIGARREN LEHENDAKARIORDEA	Carlos Benito Gómez BATZORDEKIDEA	Xanthe Luna Harvey BATZORDEKIDEA
María Belén Alonso Macías IDAZKARI OROKORRA	María Emma del Campo Pena BATZORDEKIDEA	Iñaki Sanz Esquiroz BATZORDEKIDEA
María Aranzazu Elicegui Sarobe IDAZKARIORDEA	María Asunción Guerra Alonso BATZORDEKIDEA	Carmen Solórzano Sánchez BATZORDEKIDEA

BATZORDE IRAUNKORRA

LEHENDAKARIA: Manuel García Bengoechea
LEHEN LEHENDAKARIORDEA: Valentín Collado Espiga
BIGARREN LEHENDAKARIORDEA: Ignacio Eizaguirre Sexmilo
IDAZKARI OROKORRA: María Belén Alonso Macías
IDAZKARIORDEA: María Aranzazu Elicegui Sarobe
DIRUZAINA/KONTULARIA: Victor Irigoyen Murua



DEONTOLOGIA BATZORDEA

Arau korporatiboak eta profesionalak errespetatzea eta elkargokideei errespetaraztea bete-behar duen aldetik, Gobernu Batzordeari aholku emateko sortu zen Deontologia Batzordea (Elkargoko estatutuen 36.artikulua).

Deontologia Batzordeak Gobernu Batzordeari lagundu eta aholku eman behar dio, bere betebeharra arau korporatiboak eta profesionalak errespetatzea eta elkargokideei errespetaraztea baita. Beraz, Gobernu Organoek eta/edo elkargokideek proposatutako bere eskumeneko gaiak aztertu behar ditu. Hori egin ondoren bere ondorioen berri emango dio Elkargoaren Gobernu Batzordeari, baina ondorio horiek ez dira lotesleak izango batzorde horrentzat, aztertutako gaia edozein dela ere.

2018ko irailean Deontologia Batzordea eratu zen baina urte hauetan zehar zenbait aldaketa eman dira. Hala, 2021 urte amaieran horrela eratuta dago Batzordea:

Deontologia Batzordea osatzen duten kideak

PRESIDENTEA: Jose Manuel SANTOS ZARZA

IDAZKARIA: María Montserrat PÉREZ GARCÍA

KIDEAK: José Manuel MAIZ URRETAGOYENA
Lucrecia MARTÍNEZ CAJE
María Aranzazu ALBISU OTAÑO

A black and white photograph of a hand holding several pens and pencils. The hand is positioned in the lower-left quadrant of the frame. The background is a dark, heavily textured surface, possibly a wall or a large piece of paper with a grainy texture. The lighting is dramatic, with strong highlights on the hand and the writing instruments, and deep shadows in the background.

2021 DATUAK

ELKARGOKIDETZEAK


ELKARGOKIDETZEAK (2021 / 12 / 31)

4.514




Emakumezkoak: 2.587 Gizonezkoak: 1.927

LANEKO EGOERA



Jardunean
Jubilatuak
Langabezian

JARDUERA-MOTA



Sektore publikoan soilik
Sektore pribatuan soilik
Bietan
Administrazio publikoa




ESPEZIALITATEA			GUZTIRA
Alergologia	9	9	18
Analisi Klinikoak	12	31	43
Anatomia Patologikoa	14	17	31
Anestesiologia eta erreanimazioa	64	105	169
Angiologia eta kirurgia baskularra	10	6	16
Digestio-aparatua	30	39	69
Biokimika klinikoa	0	1	1
Kardiologia	43	19	62
Kirurgia Kardiobaskularra	5	1	6
Kirurgia Orokorra eta Digestio-aparatua	81	39	120
Ahoko Kirurgia eta Maxilofaziala	9	2	11
Kirurgia Ortopedikoa eta traumatologia	116	23	139
Kirurgia pediatrikoa	6	5	11
Kirurgia plastikoa, erreparatzailea eta estetikoa	11	10	21
Kirurgia torazikoa	8	0	8
Dermatologia Mediko-Kirurgia eta Benereologia	13	23	36
Endokrinologia eta nutrizioa	9	19	28
Estomatologia	71	38	109
Farmakologia klinikoa	0	1	1

ESPEZIALITATEA	GUZTIRA		
Genetika klinikoa	0	0	0
Geriatría	15	12	27
Hematologia eta hemoterapia	13	45	58
Hidrologia medikoa	0	3	3
Immunologia	2	1	3
Gorputz-Hezkuntzako eta Kirol Medikuntza	28	7	35
Laneko Medikuntza	62	67	129
Familia eta Komunitateko Medikuntza	297	689	986
Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa	19	33	52
Medikuntza Orokorra	427	677	1104
Medikuntza Intentsiboa	28	34	62
Barne Medikuntza	118	70	188
Lege eta Auzitegi Medikuntza	5	5	10
Medikuntza Nuklearra	5	3	8
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa	12	12	24
Akreditatutako Medikuntza Orokorra	7	8	15
Mikrobiologia eta parasitologia	11	14	25
Nefrologia	11	15	26

ESPEZIALITATEA	GUZTIRA		
Neumologia	26	21	47
Neurokirurgia	13	3	16
Neurofisiologia klinikoa	5	3	8
Neurologia	37	21	58
Obstetria eta Ginekologia	53	105	158
Oftalmologia	42	38	80
Onkologia Medikoa	7	24	31
Onkologia Erradioterapikoa	12	12	24
Otorrinolaringologia	32	21	53
Pediatría eta bere esparru guztiak	81	170	251
Psikiatria	62	85	147
Haur eta nerabeen psikiatria	0	0	0
Erradiodiagnostikoa	68	61	129
Erreumatologia	13	8	21
Urologia	36	12	48
Guztira	2058	2667	4725



ELKARGOKIDETZEEN EBOLUZIOA, AZKEN HAMAR URTEOTAN (2011-2021)



2021EKO ELKARGOKIDETZEETAN IZANDAKO MUGIMENDUAK

↑ **ALTAK: 222** ↓ **BAJAK: 126**

- Beste probintzia batera: **88**
- Atzerrira joateagatik: **18**
- Jarduera uzteagatik: **6**
- Hildakoak: **14**



OHOREZKO ELKARGOKIDE IZATEKO ESKAERA: 84

ELKARGOKO KUOTA

2021 urtean kuoten zenbatekoak igoyerarik gabe mantendu ziren. Ondorengoak dira:

Kuota orokorra (hiruhilekoan)	64 €
MIR KUOTA, karrera amaitu eta ondorengo lau urteetan	32 €
Ohorezko elkargokide kuota. hiru hilero (hautazkoa). Onurak: Zure familiak onura ekonomikoa izango du zu hiltzen zarenean.	14 €
Bazkide babeslearen kuota (hautazkoa): hiru hilero. Babes Sozialerako OMC-ren Fundazioa Espainia mailako sendagileen elkartasunerako organoa da. Kuota hau ordainduz, behar bereziak dituzten sendagileek laguntzak jasotzea ahalbidetzen duzu, eta, era berean, inoiz zuk ala zure familiak beharrik izango balu, fondo honen onuradun bihurtuko zara.	23,77 €

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

2021 urtean A.M.A.-ko poliza berdin mantendu da, kontratua amaitzen den urtea izanik.

- 2021ean aseguria duten sendagileak: **2.782**
- Abenduaren 31 arteko bajak: **149**
- Altak edota estalduraren zabaltzea: **209**

2021n HILDAKOAK:

- Francisco Orbegoza Eguiguren
- Luis Barbeito Lasa
- Basilio Rodriguez Castro
- Julian Bereciartua Barrenechea
- Jose Guillermo Unanue Tejera
- Victoriano Sanchez Sanchez
- David Khouri Naim
- Pedro Recalde Busca
- Jesus Larraz Del Arco
- Miguel Belloso Loyarte
- Iñaaki Ayerbe Zabaleta
- Santiago Yáñez Perez-Vargas
- Pablo Aldave Franco
- Rene Alfonso Silva Hormazabal

SENDAGILEAREN EGUNA 2021



Omenaldia jaso duen elkargokide taldea.



Urtero bezala, Elkargoak balioan jartzen du sendagileen ibilbide profesionala eta 70 urte betetzen dituztenei omenaldia egiten die, ohorezko sendagile bilakatzen baitira.

Egun horretan ekitaldi jendetsua eta afaria egin ohi da, baina pandemia hasi zenetik modu berriak bilatu ditu Elkargoak ohorezko sendagileek omenaldia jaso dezaten. 2021ean, esaterako, 4 ekitaldi desberdin egin ziren, segurtasun neurriak bete eta jende pila-ketak saihesteko.

Ekitaldi horiek Elkargoko areto nagusian egin ziren eta Gobernu Batzordeko kideek (Manuel García Bengoechea presidenteak eta Belen Alonso idazkariak) ohorezko sendagileei diploma bana eman zieten, baita Iñigo Aristegi artistak egun honetarako egindako eskultura



Omenaldia jaso duen elkargokide taldea.

polit bat ere: lanak sendagile eta gaixoaren arteko harremana irudikatzen du.

Ekitaldian Elkargoak egun honetarako prestatutako bideoa proiektatu zen: bertan, omendutako zenbait sendagileek bokazioari buruzko hausnarketa egiten zuten eta egindako ibilbide profesionalari buruzko gogoetak eta oroitzapenak kontatzen zituzten.



2021eko OHORE GORENEKO SENDAGILEA

Ospatutako azken ekitaldian, 2021ean izendatutako Ohore Goreneko Sendagileari omenaldi berezia egin zitzaion: Roberto de la Fuente traumatologoa.

Omenaldi honetan, Elkargoko presidenteak de la Fuentearen ibilbide profesionalari errepasoa egin zion: izan ere, Alemaniatik iritsi berri, Donostiako Pakea zentroko aitzindaria izan zen de la Fuente eta bertan garatu zuen bere ibilbide profesionalaren zatirik handiena.

Ikus elkarrizketa [hemen](#)



2021EKO OHOREZKO SENDAGILEEN ZERRENDA

- Abraido Ciarreta, Jose Maria
- Agudo Ruiz, Juan De Dios
- Aguirrezabala Telleria, Jose L.
- Álvarez Barrero, Mercedes
- Anasagasti Olabeaga, Ion-Mirena
- Anza Echegoyen, Miren Garbiñe
- Argoitia Urresti, Aurora
- Arin Olabe, Zorion
- Arriola Manchola, Jose Alberto
- Arruti González, Jose Antonio
- Artiñano Anuncibay, Edurne
- Ayerbe Zabaleta, Iñaki
- Azaldegui Berroeta, Fernando
- Azurmendi Inchausti, Ignacio Maria
- Barandiaran Gil San Vicente, Anselmo
- Basterrechea Oleaga, Eugenio
- Batiz Olabegoya, Crispin
- Beguiristain Aranzasti, Jose-M.
- Berroa Garcia, Maria Angeles
- Bravo Gutierrez-Barquin, Juan Carlos
- Cámara Perez-Calleja, Mercedes
- Camborda Anavitarte, Juan Carlos
- Cárdenas Diaz Espada, Jose M.
- Char Zabbal, Jorge
- Coello Lopez, Jesus Ignacio
- Echezortu Arrizabalaga, Alicia
- Eizaguirre Sexmilo, Ignacio
- Fernandez Manchola, Jose Ignacio
- Frades Larumbe, Fernando
- Gallo Mezo, Jose Ignacio
- Garcia Arenzana Anguera, Jose
- Garcia Armiño, Jenaro
- Garcia González, Luis
- Garmendia Guinea, Antonio
- Garmendia Larrañaga, Francisco
- Gascón Calvo, Roberto
- Gil Acebes, Jose Luis
- González Echevarri, Julio Alberto
- Grijalba Azpiroz, Ernesto
- Gurruchaga Landa, Simon
- Indurain Oquiñena, Ignacio
- Irazabal Echebarria, Teresita
- Iriarte Arotzarena, Ignacio
- Irigoyen Murua, Victoriano
- Irizar Leanizbarrutia, Maria Iciar
- Iruretagoyena Senra, Juan Carlos
- Iturrioz Yurrita, Eugenio
- Lapaza Andueza, Joaquin
- Larrañaga Ezkurra, Jose Manuel
- Larrañaga Sasiambarrena, M.Jose
- Leibar Mendarte, Fco.Javier
- Loinaz Jauregui, Fernando
- López Aranjuelo, Maria Jose
- Maiza Diaz-Villafranca, Amaya
- Martinez Gaminde, Carmelo
- Masso Romero, Javier
- Mendivil Dacal, Jesús Miguel
- Mintegui Aramburu, Francisco J.
- Montes-Jovellar Rovira, Jose Javier
- Muerza Perez De Arevalo, Joaquín
- Muguerza Eraso, M. Belen
- Munguia Seas, Carlos
- Oliveros Vela, Marta Pilar
- Otermin Fagoaga, Josefa
- Oyarbide Mondaluce, Maria Jose
- Pascual Rodríguez, Jose Maria
- Poch Zatarain, Monserrat
- Querejeta Urrestarazu, Nieves
- Ramos Sáez, Jesus Eduardo
- Recasens Pares, Maria Teresa
- Rivas Delgado, Antonio
- Saenz Martinez, Jose Andres
- Segues Arregui, Juan Maria
- Solano Alvarez, Maria Luisa
- Ugalde Egaña, Iciar
- Unibaso Muruaga, Juan Pedro
- Urbietta Garagorri, Luis
- Urgoitia Uribe, Joseba Inaki
- Usabiaga Zarranz, Jaime
- Villar Marzo, M. Angeles Del
- Vivanco Martinez, Gonzalo
- Zabaleta Pagalday, Mercedes
- Zubiri Oria, Miguel Fernando
- Zulaica Aristi, Daniel

A hand in a white surgical glove holds several surgical instruments, including a scalpel and forceps, against a background of a dense, golden-yellow particle spray. The spray is most concentrated in the upper left and right areas, creating a sense of depth and texture. The hand is positioned in the lower left, with the instruments fanning out towards the center.

2021 JARDUERAK



ELKARGOKIDEARI ARRETA

2021 urtean behin baino gehiagotan eten behar izan dugu aurrez aurretiko arreta, COVID-19ren eraginagatik. Epealdi horietan, baina, aurretiko zita eskatu behar izan da, Elkargoan jende pilaketak ekiditeko eta kalitatezko arreta bermatzeko, baina, beti ere, guztion segurtasuna eta osasuna zaintzeko.

Testuinguru honetan, **online arretak** hartu duen pisua kontuan izanda, hori hobetzeko esfortzua egin da: webguneko zenbait atal berritu edo gaurkotu dira, modu telematikoan ahalik eta tramite gehien egin ahal izateko: esaterako, elkargokidetzea edota dokumentuen sinadura digitala.

Telefonian ere inbertsio esanguratsua egin da: telefonogunea hobetu da telefono bidezko arreta indartzeko, kontuan izanik epealdi batzuetan langileek euren etxeetatik egin behar izan dutela lan.

2021ean ere, egoiliarren elkargokidetzearekin batera, praktiketako pertsona bat etorri zen bulegora, batetik, aurrez aurreko arreta indartzen laguntzeko, eta, bigarrenik, askotariko jarduera administratiboetan formatu zedin.

Azkenik, urte honetan egoiliarrek hiru aste besterik ez dituzte izan tramite denak egiteko, beraz, Elkargoak **Bulego Birtuala** hobetu zuen eta ia elkargokidetzearen tramite gehienak online egiteko aukera eman zien.





AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Elkargoaren aholkularitza juridikoak, Jon Pellejero abokatuaren eskutik, elkargokide guztiei behar duten aholkularitza ematen die, baita Elkargoko organo desberdinei ere: Gobernu Batzordea, Batzorde Iraunkorra, Deontologia Batzordea...

2021 URTEKO DATUAK

ESKAINITAKO BESTE ZERBITZUAK

- Osasun Profesionalen osatzea eta altak.
- Diziplina-espedientei buruzko aholkularitza.
- Jarduera pribatua hastear dauden sendagileen alta IAE.
- Kontsulten alta Osasun Ministerioan.
- Osasun Publizitatearekin lotutako altak.
- Aurre-erretiratzei buruzko aholkularitza.

ELKARGOKO EGOITZAN IZANDAKO JARDUERAK

Batzordearen txosten juridikoak eta kontsultak, idatziz	12
Txosten juridikoak, medikuaren eskariz eginak	17

ELKARGOKIDEEI ESKAINITAKO AHOLKULARITZA

Aurrez aurreko kontsulta pertsonalak, Elkargoaren egoitzan	282
Berlaratu gabeko kontsultak / e-mailak (jasoak eta bidaliak, gutxi gorabehera)	1.700
Berlaratu gabeko kontsultak / telefono bitartez (jasoak eta bidaliak, gutxi gorabehera)	800
Irekitako espedienteak: Egindako kontsulten ondorioz hainbat espediente ireki dira formatu fisikoan, jorratutako auzi horien izapidetza/erreklamazioa/erantzuna bideratzeko	260
Medikuen kontra jarritako keak	13

JARDUKETA JUDIZIALAK

Lan-arloko Jurisdikzioa	26
Administrazioko Auzien Jurisdikzioa. (Osakidetza)	31
Jurisdikzio zibila eta zigor-arlokoa / Erreklamazioak / Erantzukizun profesionaleko epaiketak	
Demandaren aurreko jarduketak	21
2021. urtean izapidetan zeuden auziak	12
2021. urtean ebazitako auziak	6
Itunak	3



2021ri BURUZKOAK

2021 urteko zenbait epealdietan aurrez aurretiko kontsultak mugatu badira ere, 2020 urtean baino gehiago egin dira: 282 izan dira aurten eta 180 pandemia hasi zen urtean.

Hala eta guztiz ere, gero eta ohikoagoa da elkargokideek euren kontsulta eta tramiteak emaillez edo telefonoz bideratzea, dokumentazioa ere halaxe bidaltzea errazagoa eta azkarragoa delako.

2021an gertatutakoen inguruan, bi egoera azpimarratu behar dira. Batetik, Osakidetza sendagileen interes handia aurre-erretiroa hartzeko, batetik legedi aldaketagatik eta bestetik asko eta asko lan karga handia bizitu dutelako azken urteetan.

Bestalde, aipatzekoa da Historia Klinikoetara baimenik gabe sartzeagatik dauden diziplina espedienteak: egoera hauek guztiz saihesgarriak dira nahiz eta zoritxarrez behin eta berriz errepikatzen diren. Hemen irakur dezakezu horren inguruan.

Erantzukizun profesionalari buruzko erreklamazioen inguruan, aldiz, azken urtean ez da erreklamazio penalik gertatu eta itxi gabe zegoen bat azkenik artxibatu egin da akordio bati esker. Bide zibiletik joan diren erreklamazioei dagokionean, aseguruia 300.000 eurotara igotzeari esker, erreklamazio denetan estaldura nahikoa dago, bakarrean izan ezik: honetan 300.000 euro baino gehiagokoa izan arren, aseguruaren hurrengo maila den 450.000 eurokoa baino baxuagoa da.

KOMUNIKAZIOA

Komunikazio departamentuak bere jarduerarekin jarraitu du; alde batetik, elkargokideei zerbitzu ematen die ohiko buletinekin, webguneko informazioa eguneratuz, Elkargoko aldizkarirako edukiak sortzen nahiz sare sozialak dinamizatzen. Bestalde, hedabideetan ere hainbat ekintza egin dira urtean zehar, gizarteari orokorrean mezuak helarazteko asmoz.

2021eko MUGARRIAK

Elkargoko irudiaren berritzea

2021 urtean Elkargoko identitate korporatiboa berritu zen, irudi modernoagoa sortu, COMGI siglei indarra eman eta COMGI Fundazioa markarekin lotura hobetzeko.

Irudi berriak:



Hedabideetan egindako jarduerak

Elkargoak eta bere Gobernu Batzordeak jarduera etengabea burutu dute 2021 urtean hedabideetan, elkarrizketa, prentsa ohar edota iritzi artikulua argitaratu emanez askotariko gaien inguruan. Izan ere, Elkargoak oso presente eduki du profesionalek COVID-19aren aurkako borrokan egin duten lana bai eta herritarren osasuna zaintzeko konpromisoa ere. Azpimarratzekoak dira, ekintza guztien artean, ondorengo biak: medikuntza pribatuko sendagileen txertatzean bizitako diskriminazioa eta horrekin lotuta Elkargoak egindakoak eta Lehen Mailako Arretaren egoerari buruz egindako salaketak.

Ikus komunikatu guztiak [hemen](#)

Argitaratutako zenbait artikulua:

► Dugun erantzun bakarra, gure lana

Negazionistentzako erantzuna.

► IRITZIA: Itolarrian bizi dira Lehen Arretan

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren Gobernu Batzordeko hamabost kideek sinatua.

► Los Colegios de Médicos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa se adhieren a la declaración vasca a favor de la suspensión temporal de las patentes de las vacunas para la COVID-19

Manuel García Bengoechea presidentea ekitaldian egon zen.

► Editorial: Sobre medicina y eutanasia

Manuel García Bengoechea, COMGIko presidentea

► Medikuntza pribatuan ari diren lankideen txertatzean eman den diskriminazioari buruz:

- <https://www.diariovasco.com/sociedad/salud/colegio-medicos-exige-20210301114344-nt.html>
- <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210301/el-colegio-de-medicos-de-gipuzkoa-se-queja-de-que-la-mayoria-sigue-sin-ser-vacunados-contra-el-covid>
- <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2021/03/02/eus-kadi-prueba-illunbe-vacunacion-masi-va/1093511.html>
- https://www.cope.es/actualidad/sociedad/noticias/cvirus--medicos-guipuzcoa-exige-salud-una-fecha-concreta-inicio-vacunacion-los-profesionales-privados-20210301_1165422



Medikuen Ahotsa aldizkaria

Medikuen Ahotsa aldizkari digitalak erreportaje eta elkarrizketa ugari bildu zituen 2021ean, baita Elkargoaren jarduerari buruzko albisteak eta Espainiako Medikuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiarenak (CGCOM) ere.

Gainera, Donostia Ospitaleko Asistentziaren Etikako Batzordearekin (AEB) elkarlanean jarraitzen dugu eta bi hilero dilema etikoren batekin lotutako artikulua idazten dute bertako kideek, sendagileei gai horietan laguntzeko asmoz (hemen irakurri).

2021eko artikulua irakurrienak:

- Yo no me vacuno y asumo la responsabilidad de no hacerlo
- Los peligros del falso certificado médico: para el médico y para el paciente (delitos de los arts. 397 y 399 CP).
- Transexualidad e intersexualidad en pediatría: dos conceptos distintos
- Sobre los certificados e informes médicos
- La lucha de las primeras mujeres médicas
- Sobre medicina y redes sociales con Gadea Braceras



ELKARGOKO MUGARRIAK

Medikuntza pribatua ari diren lankideen txertatzearen aldeko borroka

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa, Bizkaia eta Arabakoekin batera, hainbat ekintza burutu zituzten 2021 urtean medikuntza pribatua ari diren sendagileen txertatzea bermatzeko. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin behin baino gehiagotan biltzeaz gain, gure kexa azaldu genuen informazio faltagatik eta hainbat kolektibo sendagileen aurretik txertatzeagatik. Azkenean, formulario baten bitartez, txertoa nahi zuten eremu pribatuko sendagileez osatutako zerrenda egin genuen eta euren immunizazioa azkartu egin zen. Ikus adierazpenak [hemen](#).

Txertoak jartzeko sendagile boluntarioak

2021ean, Elkargoatik mezu ugari zabaldu ziren herritarren immunizazioaren garrantziaren inguruan. Honekin loturik, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren elkarlanean, txertoak jarritz lagundu nahi zuten sendagile boluntarioen erregistroa sortu genuen. Urte amaieran, gainera, deialdi berria egin zen Elkargotik, umeen txertoekin aurrera egin eta hirugarren dosiak jartze aldera.

BANKOA / ABANCArekin elkarlanerako hitzarmena

Bankoa aspalditik da Elkargoarekin kolaboratzailea. 2021 urtean elkarlanerako hitzarmena berri zuten beste urtebetez, besteak bes-

te, elkargokideei eskaintza bereziak egiteko. Bankoa, gainera, COMGI Fundazioko babesleetak bat, eta bere ekarpenari esker, formakuntzako jarduerak ugari eraman daitezke aurrera. 2021 hasieran Bankoa ABANCArekin integratu zen.



IMQrekin akordioa

2021eko maiatzean Elkargoak bere akordioa berri zuten IMQ osasun aseguru etxearekin, elkargokideei baldintza berezietan zerbitzua eskaini ahal izateko. Izan ere, hitzarmen honi esker, 70 urtera arteko estaldura jaso dezakete elkargokideek, normalean aseguruek kanpo dagoen adin tartea izanik hori. Hitzarmenaren sinadura Elkargoko presidentea den Manuel García Bengoecheak eta IMQ Gipuzkoako negozioen arduradun den Roberto Azpiatzuk burutu zuten.

La Perla Talasoterapiaren deskontua


Elkargoak eta La Perla akordioa sinatu zuten 2021ean elkargokideei deskontua eskaintzeko asmoz. Hala, Talasoterapiako zirkuitoan %10eko deskontua dute elkargokideek, baita zentro honek eskaintzen dituen banakako tratamendu guztietan ere.

ONLINE INFORMAZIO SAIOA: Medicina y Eutanasia: ¿pueden llegar a entenderse?

Euskadiko Etikako Komiteen Batzorde Soziosanarioak eutanasia eta suizidio lagunduaren erregularizazioaren inguruko posizionamendu etiko eta baloratioa barne hartzen duen informea ezagutzera emateko helburuz antolatu zen saioa eta, bide batez, onartzeke zegoen Legearen inguruko zalantzak argitzea bilatzen zuen.

SAIOAREN BIDEOA

Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien TicketBAI sistemaren abiatzeari aurre hartu nahian, Elkargoak formakuntza saio hau antolatu zuen, elkargokideen zalantzak argitu eta sistema zertan datzan azaltzeko. Saioan Arantza Insausti abokatu eta aholkulari fiska-



“Los valores del cuidado” liburuaren aurkezpena

24



“Medikuaren oinarritzko gaitasun profesionalak” liburuaren aurkezpena

Abenduan elkargokide den Maialen Berridiren liburu hau aurkeztu zen Elkargoko areto nagusian. 2017ko Agote Sariaren lan irabazlean oinarrituta, Berridik osasun profesionali baliabideak eman nahi dizkie gaixotasunetik haratago lan egin eta pertsonengan zentratutako arreta emateko, euren testuinguruan, senitartekoetan eta bestelako ezaugarrietan sakonduz. Ikus [bideoa](#)

Pandemiaren inguruan hausnartzen

Ekainaren 30ean pandemiaren eraginez bizitakoak hausnartzeko gonbidea egin ziguten Eri-zainen Elkargoak antolatutako Udako Ikastaro batean. Bertan izan zen COMGIko presidentea, Maue García Bengoechea, eta pandemia hasi zenetik hona ongi egindakoak mahai gaineratu ziren arren, hobetu beharrekoen inguruan ere aritu ziren hizketan hizlari ugari. Politika, osasun

edo giza zerbitzuen arloetako ordezkari ugari bildu ziren Miramar Jauregian.

KONTSEILUaren dokumentuari atxikimendua

Elkargoak bere atxikimendua eman zion Euskalgintzaren Kontseiluak landu eta proposatutako **Batuz Aldatu** dokumentuari. Dokumentua ekainean aurkeztu zen Kursaal Jauregian eta bere helburua euskararen erabilera erosoak baldintzak sortzea. Horretarako, hizkuntza-eskubideak eremu guztietan bermatu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik izan.

Bide horretan, bi norabidetze ezarri dira. Alde batetik, hizkuntzaren ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatu beharko da, herritar guztiek euskaraz aritzeko gaitasun egokia izan dezaten. Bestetik, euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan izan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik. Ikus [dokumentua](#)





COVID-19 PROIEKTU BEREZIAK

Koronabirusaren Krisiaren aurrean Laguntza Psikologikoa emateko Programa

Pandemia honek lankide asko eta askorengan eragiten ari den sufrimendu psikologikoa arintzeko zerbitzua hau martxoan jarri zuen abian Elkargoak. PAIME programari lotuta dago eta Getaria 20 Psikiatria eta Psikologia Zentroarekin elkarlanean eskaintzen da.

Programan sartzen diren medikuek beren lana baldintza onenetan egin ahal izatea eta Estres Postraumatikoaren Nahasmendua prebenitzeko beharrezko tratamendua jasotzea dira programaren helburu nagusiak. Erresilientzia areagotzeko baliabideak garatzea da egiten den lanaren oinarria, banakako eta laguntza psikologiko espezifikoa bermatuz eta krisi-egoerari aurre egiteko baliabideak emanez.

2021ean hainbat elkargokideri arreta eman zaie doan eta modu guztiz konfidentzialean.

BABES SOZIALERAKO OMC FUNDAZIOA

